



Espainiar eta Frantziar espetxe-  
etan sakabanatuak dauden  
750 preso politikoak benetan  
egoera kezkarria daude  
egun, espresuki beraien  
aurka mantentzen den espetxe  
politika krudelaren ondorioz.

Giza eskubideen ukazioa egu-  
neroko ogia da espetxeetan.  
Preso politikoak pertsona be-  
zala suntsitu nahi dituen poli-  
tikarekin jarraitzen dute bi  
gobernuek, presoak bakartuz,  
komunikazioa zailduz, oinarriko  
eskubideak zangopilatuz. Azken  
urteetan euskal preso politikoei  
begira hartzen ari diren neu-  
rriek ere berdina erakusten  
dute, biziarteko espetxe zigor-  
ra eta gaixo larriei ezarritako  
heriotza zigorra izanik bere  
espresiorik gordinenak. Nola  
ulertu bestela minbiziak jota dauden presoak  
espetxean mantentzea? Nola ulertu bestela 20  
urteko espetxe zigorra betea duen presoari bere  
kondena beste 10 urtez luzatzea? Helburu argiak  
dituzte euskal preso politikoen aurka hartzen ari  
diren salbuespeneko neurriek.

Baina neurri hauek ez daude soilik espetxeetara  
begira martxan jarriak. Presoarekin batera bere  
senide eta lagunak daude zigortuak, astero milaka  
kilometro egitera behartuak. 40 minutuko bisita bat  
egiteko orduak eta orduak errepidean pasatu  
beharrak agerian uzten du sakabanaketa poli-  
tikaren krudelkeriaren neurria. Sakabanaketak  
presoen senideei ondorio ekonomiko eta fisiko  
nabarmenak eragiten dizkie, kilometro guzti hauek

Biziarteko  
zigorrik ez!  
Heriotza  
zigorrik ez!

# Euskal presoak Euskal Herrira!

egiteak suposatzen duen arris-  
kuaz gain. Ondorio larriena  
heriotza da, errepidean bizitza  
utzi dute 16 senideek erakus-  
ten duten bezala.

Adibide gehiago aipa genitza-  
ke, beti ondorio berdinerira iris-  
teko: Euskal preso politikoei  
eguneroko jazarpena bizi dute  
giltzapean.

Egoera honen arduradun zuzen-  
ak diren espainiar eta frantziar  
gobernuei ondorengo eskaria  
luzatzen diegu:

- *Gaixotasun larriak dituzten  
euskal preso politikoak  
berehala askatu ditzatela.*

- *Biziarteko zigorra  
ezartzeko neurriak bertan*

*behera utzi ditzatela: Kondena betea duten  
presoak kaleratuz eta kalean daude preso  
ohiak bakean utziz.*

- *Euskal presoak euskal herritaruak izan  
daitezela, sakabanaketa eta bakartze  
politikarekin amaituz.*

Beste dei bat luzatu nahi diogu euskal jendarteari.  
Herritarren inplikazioarekin eta lanarekin soilik lortuko  
dugu helburu hauetara iristea. Lan asko egin da urte  
hauetan guztietan, baina egoerak larria izaten jarrai-  
tzen du eta asko dugu oraindik egiteko. Bide honetan  
euskal preso politikoen eskubideen alde urtarilaren  
3an Bilbon burutuko den nazio manifestazioan parte  
hartzeko deia luzatzen dugu hemendik.



**etxerat**

euskal errepresaliatu politikoen senideen elkartera